

“Aspaldi ezagututako perretxiku urterik onena”

Jendeak asko bildu duela dio, *Onddoa* batez ere. *Kolpe* asko eta onak izan dira.



Leandro eta
Martxeli goizeko
pasaixua eginda

Urte sasoi honetan ederi miatzen dira gure baso inguruak. *Todo terrenoan*, motoan edo oinez ez da pasa gabeko txoko asko geldituko.

PERRETXIKUZALEAK POZIK

Hasi maiatzean eta oraindik ere asko ari da biltzen jendea. Zaharrenek ere ez omen dute horrelako asko ezagutu, hainbeste denboran nekez irauten baitu *kolpeak*.

INGURU HONETAN ASKO
Urumea erreka inguruko basoetan bildu omen da gehien aurtent; behean tontorretan baino gehiago, eta bertako haitzean asko. Urtero bezalaxe jende asko ibili da, baina badirudi denentzako adina badela.

SEKRETUA ASKO IBILTZEA

Perretxikua non, nola eta noiz aterako den ez da errez antzematen. Hemen ere bakoitzak bere eskola: “Onddoa hasi

norteko haitzean, segi bertakoan eta amaitu *pagoan*”, “hezetasuna, beroa, eta eguraldi garbia behar ditu”, “garrantzitsuena ilargia”. Zerbaitetan bat datoz, ordea: “Sekretua asko ibiltzea”.

NON ENPLEATU

Hemengo jatetxe eta saltzaileek, ondo ordaintzen dute bertako jeneroa. Zenbaitek horiei saltzen dizkiete, beste zenbaitek nahiago dute segituan jan, konjelatu edo erregalatu. q

HERRI BARRUKO AUTOBUSA

Zerbitzua bihar hasiko da berriz betiko ordutegian

Orain arteko bi lineak mantenduko ditu: Antziolatik bueltan Etxeberrira eta Zikuñagara.



Herri barruko autobusa Urbietako paradan.

HIRU asteko oporraldia eta gero herri barruko autobus zerbitzuak bihar ekingo dio urte osoko lanari. Goizeko zortzietatik arratsaldeko zortziak eta hamar arte habost buelta egiten

ditu Etxeberrira eta beste bost Zikuñagara. Iñaki Zerain txoferrak linea gehiago egiteko pentsamenduak badabilzki, baina, orainoz betiko martxan segiko du. q

■ PELOTA

Erroizenean Antiguako txapelaren bila

Arkoterekin jokatu du Mendizabal-Gurrutxaga bikotearen kontra. Partidua 10:00etan.

Antiguako Torneoako finalak jokatu dira gaur. Ereñotzuarrak eta Arkotek txapela irabazteko aukera bai, baina, besteak ere “ettuk mankuak” Unaik, Garikoitzen anaiak. Imanol Olan, Hernaniko fitxa duen gabiriarrak ere, oso

txapelketa polita egin eta finalaurrean kanporatu zuten.

Beste finalak

Promesa mailan

Arantzeta - Gutierrez
Sorrarain - Zapiain
Afizionatu mailan
Amarika - Urberuaga
Saralegi - Txikito IX



Xabier Santamaria
“Xanta”

“Bakoitzak dakizkigun txokoak batuta Txinako mapa osatzeko adina egingo genuke.



Jesus Mari Irazu

“Perritxiku asko daude, oso onak izanagatik jendeak ezagutzen ez dituenak”.



Manuel Utesa
“Pua”

“Onddoa oso kapritxosoa da, anarkista. Sekretua, ez dut sekula ikasiko.

IRAGARKI MERKEAK

► Neska behar da, etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko.
Tel.: 943 55 08 66
606 13 41 09.



ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
‘OBLATOS’ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

AUZOAK

Aparkaleku berria egiten ari dira Antziolan

Hogeita hamar toki izango da, baterian. Bi hilabetetan bukatuta egongo da eta obrak zazpi miloiko aurrekontua du.



Antziola, Oriamendi alderako bidean; mendiari puska jan eta aparkalekurako tokia prestatzen.

ANTZIOLA auzoan lur mogimendu dezentea dabil. Aspaldian ez da koxkan koxtea aparkatuta ez duen espaloi muturrik ikusi izan. *Otegi Gaztañaga* enpresak duela astebete hasi zituen aparkaleku egiteko obrak: Mendiari puska jan eta dena berdindu. Beste astebete beharko dute

lurra prestatu, ka-nala jarri eta ertzak txukuntzen. Gero hasiko dira galipota lanak. Epeak betetzen badira hila-bete pare batean aparkaleku eginak egongo da.

30 APARKALEKU BATERIAN

Aparkalekuak ia berrogehit

hamar metroko luzera du alderik-alde eta trabeska hogeita hamar kotxe sartzeko egina dago proiektua.

ZAZPI MILIOI

Hirigintza sailak agindutako obra osoak, hasi eta buka, zazpi milioi inguruko aurrekontua du. □

GUTUNAK

Hernaniko Kronikatua, txikia eta apala, baina, gozua

Etxeotan altzairuzko azpilak gutxitan izaten dute gainean ezer berpizgarri. Dena den, gaur azpilak zer zekarren ere ez diot begiratu, beste eskuan *Kronikak* nituen eta horiek dute nire herrimina. Ziega nardagarriotan dagoen bat urdailetik bakarrik ez baita elikatzen. Hernaniko taupaden berri freskoa ez duk eguneroko mokau goxua izaten gero!!

Hernaniarren markak munda guztian dira ezagunak. Esku artean duten txiki huraxe ondo egiteko talentuarekin gauza handiak egiten maisuak

diren fama badute hernaniarrak. Eta horregatik Hernanitik kanpo gaudenok, maiz harro esaten dugu hernaniarrak gara. *Kronika* ale hauek aukera onik emango didate. Irakurtzen gozatutako ordu parearen jakitun balitz Fungairiño...

Begirik -eta nire kasuan betaurrekoak ere behar gabe ez nituzke irakurriko kronikak, baina, bihotzak ere azelako ahalegina egin duen horko esaldi eta argazkiei segika. Hernaniko bizitzaren bizia txukun-txukun laburbilduta baitakarte kronika hauek. Bihoakizue Doberakideok bihotzean iltzatua geratu zitiadan Mandelari irakurritako

esaldi hau: "Askatasunaren aldeko borrokalaria batentzat ezinbestekoa da bere jaioterriko sustraiekin harremanetan egotea, eguneroko jazoera astingarriek, kartzelako ankerkeriek, hein handi batean, iragana ahaztarazten baitute. Harreman horiek borrokalaria, presoak, indarberritzen dute, aspaldi nabaritzen ez zituen sentimenduak berpizten zaizkio. Oso arnasberritzen da"

Kronika hauek egin didaten igurtzia Hernani osoak egin bailitzan sentitu dut, eta horregatik, besterik gabe, Hernani izan zaitez beti Hernani!! □

Joxean Pagola Beltza
Euskal preso politikoa

HITZ BITAN



✓ GALDUTAKOAK

Kronikara larruzko kartera marroi bat iritsi da; joan den astear-tean Kardaberaz kalean aurkitua da, barruan giltza sorta bat duela. Jabeak udaltzainetan izango du kartera zai.

✓ TXIRRINDULARITZA

'Artzak Ortzeok' saria gaur Hernanitik barrena. Gero eta gutxiago falta da aurtengo denboraldia bukatzeko, baina, oraindik azken pedal-kolpeak eman beharko dituzte txirrindulari gazteek. Gaur, Intxaurren dute zita. Goizeko bederatziak eta erdietan irten eta ia 100 km-ko ibilbilbidea bete beharko dute. Hernaniko *Kaiku* taldeak Ibai Iturritza, Axier Manjon, Albert Gonzalez, Aitor Bellosillo eta Alain Urkola izango dira irteeran. Bertatik bertara ikusi nahi dituenak: 09:35etan Martindegitik pasa eta Zinkoeneatik Galarretara; handik Urnietara; 11:15etan Errekaldetik Urnietara; eta 11:40etan Errekaldetik Zinkoenera Astigarragara bidean. □

HERIOTZAK

Manuela Urruzola Uizi anderea.
Atzo hil zen 76 urte zituela.

☎ TELEFONOAK

Taxiak: 943 550093
Udaltzaingoa: 943 333288
DYA: 943464622
943 335533
Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

Egunez: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943552087
Gauzez: Irigoien
Elkano, 2
☎ 943552087



PEUGEOT

SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK

Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Ford Escort Familiarra Turbo Diesela	SS-AV
Ford Mondeo Turbo Diesela- Haize egokitua	SS-AV
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 306 Turbo Diesela-Llantak-H.egokitua	SS-BB
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Suzuki '4 X 4'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...